



INFORMAZIO-OHARRA

AZTERKETA TEORIKOA EGITEKO JARRAIBIDEAK

Hautagaiei hurrenkera alfabetikoan deituko zaie, dei bakar batean, azterketa-lekuaren sarreran, eta NANA erakutsi beharko dute. Boligrafo urdina edo beltza eraman beharko dute. Idazketarako eta uretarako beste tresna batzuk ere eraman ditzakete. Azterketan ezin izango dira begi-bistan eduki mugikorrak, erloju adimendunak, kalkulagailuak..., eta, gainera, itzalita egon beharko dute uneoro.

Seigarren oinarriarekin bat etorritik, oposizio-fasean idatziz erantzungo da, emango den txantiloian, 30 galderako galdetegi bat (gehi erreserbako 5), lau erantzun alternatiborekin (a.b, c eta d), eta horietatik bakarra izango da zuzena.

Galderen koadernotxo entregatzeko unean, hautagaiek euskarazko edo gaztelaniazko bertsioa nahiago duten adierazi beharko dute.

Txantiloiko erantzunak dagokion laukitxoan gurutze batekin markatuko dira.

Erantzuna boligrafo urdinez edo beltzez markatuko da, inoiz ez arkatzez.

Erantzun bat zuzendu behar izanez gero, gurutze bat zirkulu batez inguratuko da, eta, ondoren, gurutze batez markatuko da erantzun zuzena.

Erantzun-txantiloiak zenbakituta egongo dira, eta, beraz, ez dira bikoiztuta emango.

Zuzen erantzundako galdera bakoitza, oinarrien arabera, 0,50 punturekin baloratuko da, eta erantzun oker bakoitza 0,10 punturekin zigortuko da. Probaren balorazioa 0 eta 15 puntu artekoa izango da, eta gutxienez 5 lortu beharko dira proba gainditzeko.

Azterketak 90 minutu iraungo du. Lehen 15 minutuak igarotakoan, nahi dutenek azterketa utzi ahal izango dute. Gainerako pertsonak azterketa-denbora amaitu arte egon beharko dute, azterketa amaitu duten ala ez kontuan hartu gabe, eta inolako zaratarik gabe.

Proba egiten den bitartean ezin izango da komunera joan.

Hautagai bakoitzari hiru dokumentu emango zaizkio:

-Identifikazio-orri zenbakitu bat, datu pertsonalak emateko.

-Azterketako galderen koadernotxo bat, irteeran gorde ahal izango dutena.

- Erantzun-orri zenbakitua, identifikazio-orriaren zenbakiarekin bat datorrena.

Epaimahaiko kideek berek emango dute dokumentazioa, hautagaiak eseri ondoren, eta hautagaiak jasoko dute proba amaitzean ere.

Izangaiek bereizita emango dituzte zenbakitutako orria (identifikazioarekin) eta erantzun-orri zenbakitua. Horiek gutun-azal desberdinetan sartuko dira.

Hautagai guztiak jaso ondoren, altxatu eta azterketa-gelatik irten ahal izango dira. Epaimahaik udal ediktuen taulan eta egoitza elektronikoan argitaratuko ditu erantzunak.